



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

Bilera-zenbakia: 2022IPLE0005

Eguna: 2022-05-31

Ordua: 19:00 – 19:15

Tokia: Areto Nagusian

Bertaratuak

- Aintzane Barandiaran Ezponda.....Astigarragako EH Bildu
- Andoni Gartzia Arruabarrena.....Astigarragako EH Bildu
- Roxali Fernandez RodriguezAstigarragako EH Bildu
- Esti Neira MartinezAstigarragako EH Bildu
- Aitor Güemes OyarbideAstigarragako EH Bildu
- Ione Olatziregi MendiorotzAstigarragako EH Bildu
- Juan Martín Arregui Sagües.....Astigarragako EAJ-PNV
- Nerea Zusberro Alberro.....Astigarragako EAJ-PNV
- Antton Costa Casco.....Astigarragako EAJ-PNV
- Iñigo Touzani Velasco.....Astigarragako EAJ-PNV
- Mikel Durán Gonzalo.....Udal-talde Sozialista
- Xabier Urdangarin LasaAstigarragako EH BILDU

Bertaratu ez direnak

- Xabier Urdangarin LasaAstigarragako EH BILDU

Idazkaria

- Kontxi Urdampilleta Santamaria

Aztergaiak

EGUNEKO AZTERGAIK	Zk	ORDEN DEL DÍA
2022ko maiatzaren 3ko akta onartzea.	1	Aprobación del acta de 3 de mayo de 2022
Tokiko ekintza jasangarria eta Tokiko 2030 Agenda Euskadin bultzatzeko –Udalsarea 2030, udalerrri jasangarrien euskal sarearen berriztapena akordioaren aldeko atxikimendua.	2	Adhesión al acuerdo para el impulso de la acción local sostenible y la Agenda 2030 local en Euskadi. Renovación de Udalsarea 2030, red vasca de municipios sostenibles.
Merkataritza-lokalak etxebizitza bihurtzeko ordenantzaren aldaketa puntuala. Behin betiko onarpena.	3	Modificación puntual de la Ordenanza para la conversión de locales comerciales en vivienda. Aprobación definitiva.
Bortoene Xehetasun Azterlana. Behin-betiko onarpena.	4	Estudio detalle Bortoene. Aprobación definitiva.
Kiroldegiaren berritzeari buruzko aurretiko azterketa	5	Anteproyecto de rehabilitación del polideportivo
Astigarragako bide publikoak hobetzeko azterlanen eta lanen memoria balioetsia.	6	Memoria valorada de análisis y trabajos de mejora de caminos públicos de Astigarraga.
Etkez etxeko laguntza zerbitzuaren kontratua: kontratua luzatzea	7	Contrato del servicio de asistencia domiciliaria: prorrogación del contrato



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

Babestuetako etxebizitzetako erabiltzaileentzat laguntza zerbitzuaren kontratua: kontratua luzatzea.	8	Contrato del servicio de asistencia a personas usuarias de las viviendas tuteladas: prorroga del contrato.
2023 urterako herriko jai eguna izendatzea	9	Designación de la fiesta local para el año 2023.
Astigarragako osasun zentro berriari buruzko adierazpen instituzionala.	10	Declaración institucional sobre el nuevo centro de salud de Astigarraga
Informazio, galdera eta eskariak.	11	Información, ruegos y preguntas.

Bilera hasi aurretik, Aintzane Barandiaranek, 1. alkateordeak, hitza hartu eta azaldu du alkatea gaixotasun bajarekin dagoenez, eginkizun eta eskumen guztiak eskuordetu dizkiola.

Antes de comenzar la sesión, Aintzane Barandiaran, 1ª Teniente de Alcalde, toma la palabra para explicar que al estar el alcalde de baja por enfermedad, le ha delegado a ella todas sus funciones y competencias.

Esan-eginak eta erabakiak

1.- 2022ko maiatzaren 3ko akta onartzea.

Jon, Antton eta Mikel zinegotziak abstenitu egin dira aurreko bileran egon ez zirelako. Gainerakoek, berriz, alde bozkatu dute. Beraz, akta onartu egin da.

1.- .Aprobación del acta de 3 de mayo de 2022

Los concejales Jon, Antton y Mikel se abstienen por no haber asistido a la sesión anterior. El resto vota a favor. Por lo tanto, se aprueba el acta.

2.- Tokiko ekintza jasangarria eta Tokiko 2030 Agenda Euskadin bultzatzeko –Udalsarea 2030, udalerri jasangarrien euskal sarearen berriztapena akordioaren aldeko atxikimendua.

Alkateordeak hitza pasa dio Andoni zinegotziari eta horrek azaldu du udala urteak daramazkila atxikituta, baina orain sarearen formatua aldatu denez, atxikipen berria egin behar dela. Ondoren, Hirigintza, Etxebizitza Ingurugiroa eta Mugikotasuna batzorde informatiboko irizpen hau aurkeztu da onartua izan dadin:

Lehena.- Tokiko ekintza jasangarria eta tokiko 2030 agenda euskadin bultzatzeko –udalsarea 2030, udalerri jasangarrien euskal sarearen berriztapena- akordioari atxikitzea.

Bigarrena.- Erabakiaren berri Udalsarea 2030ari ematea.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena **ahobatez onartu** da.

2.- Adhesión al acuerdo para el impulso de la acción local sostenible y la Agenda 2030 local en Euskadi. Renovación de Udalsarea 2030, red vasca de municipios sostenibles.

La teniente de alcalde cede la palabra al concejal Andoni, quien explica que el Ayuntamiento lleva años adherido, pero que ahora se ha cambiado el formato de la red, por lo que hay que hacer una nueva adhesión. A continuación, se presenta, para su aprobación, el siguiente dictamen de la Comisión Informativa de Urbanismo, Vivienda, Medio ambiente y Movilidad:

Primero.- Adherirse al acuerdo para el impulso de la acción local sostenible y la agenda 2030 local en euskadi. renovación de udalsarea 2030, red vasca de municipios sostenibles.

Segundo.- Notificar el presente acuerdo a Udalsarea 2030

Acto seguido se procede a votar y se **aprueba** el dictamen por **unanidad**.



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

3.-Merkataritza-lokalak etxebizitza bihurtzeko ordenantzaren aldaketa puntuala. Behin betiko onarpena.

Alkateordeak Andoni zinegotziari eman dio hitza, eta hark azaldu du hasierako onespenera alegazioak egiteko epearen barruan bat aurkeztu zuela udal-arkitektoak, eta horren xehetasunak azaldu ondoren, Hirigintza, Etxebizitza, Ingurumen eta Mugikortasuneko Informazio Batzordearen honako irizpen hau aurkeztu du, onartua izan dadin:

LEHENA.- Udal arkitektoak 2022ko apirilaren 21eko txostenean egindako proposamenak **PARTZIALKI ONARTZEA**, beraz, honako alderdi hauek aldatu beharko dira:

a.- Lokalak etxebizitza bihurtzeko aukera baztertzeko duten kaleak jasotzen dituen plano txertatzea.

b.- 5. artikuluko 2. paragrafoan, hurrengo atala gehitzea:

“ Lokalaren azalerak etxebizitza bat baino gehiago ahalbidetzen baditu, bakarrik onartuko da horietako batek gela bakarra izatea.”

BIGARRENA.- Merkataritzako lokalak etxebizitza bihurtzeko Ordenantzaren aldaketa puntuala behin betiko ONARTZEA. Aldaketa horrek artikuluko hauei eragiten die: 2., 3., 4., 5., 20., 21., 22. artikulukoak, xedapen iragankorra eta bihurtetatik kanpo geratzen diren kaleak mugatzeko planoak.

HIRUGARRENA.- Merkataritzako lokalak etxebizitza bihurtzeko Ordenantzaren Testu Bategina ONARTZEA.

LAUGARRENA.- Merkataritzako lokalak etxebizitza bihurtzeko ordenantzaren testu bategina osorik ARGITARATZEA Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta web orrian.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena **aho batez onartu** da.

4.- Bortoene Xehetasun Azterlana. Behin-betiko onarpena.

Alkateordeak Andoni zinegotziari eman dio hitza,

3.- Modificación puntual de la Ordenanza para la conversión de locales comerciales en vivienda. Aprobación definitiva.

La teniente de alcalde cede la palabra al concejal Andoni, quien explica durante el plazo de alegaciones a la aprobación inicial, el arquitecto municipal presentó una, y tras explicar los pormenores de la misma, presenta, para su aprobación, el siguiente dictamen de la Comisión Informativa de Urbanismo, Vivienda, Medio ambiente y Movilidad:

PRIMERO.- ESTIMAR PARCIALMENTE las propuestas formuladas por el arquitecto municipal en su informe de fecha 21 de abril de 2022, por lo que se deberán de modificar los siguientes aspectos:

a.- Incorporar el plano donde se reflejan las calles donde se excluye la posibilidad de conversión de locales en viviendas.

b.- En el artículo 5 apartado 2 incorporar el siguiente apartado:

“En el supuesto en los que la superficie del local posibilite más de una vivienda, sólo se admitirá que una de ellas cuente con una habitación”.

SEGUNDO.- APROBAR definitivamente la modificación puntual de la Ordenanza para la conversión de locales comerciales en viviendas, que afecta a los siguientes artículos: 2, 3, 4, 5, 20, 21, 22, disposición transitoria y al plano de delimitación de las calles excluidas de la conversión.

TERCERO.- APROBAR EL Texto Refundido de la Ordenanza para la conversión de locales comerciales en viviendas.

CUARTO.- PUBLICAR íntegramente el Texto Refundido de la Ordenanza para la conversión de locales comerciales en viviendas en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y en la página web.

Acto seguido se procede a votar y se **aprueba** el dictamen por **unanimidad**.

4.- Estudio detalle Bortoene. Aprobación definitiva.

La teniente de alcalde cede la palabra al concejal



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

eta hark azaldu du hasierako onespeneri alegazioak aurkezteko epean ez dela bat ere aurkeztu, baina onarpen hori baldintzatua izan zela eta ezarritako baldintzak bete direla. Ondoren, Hirigintza, Etxebizitza Ingurugiroa eta Mugikotasuna batzorde informatiboko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

Lehenengoa.- Astigarragako HAPOko 2.4 EU aren BORTOENEA Xehetasun Azterlanari behin betiko onarpena ematea.

Bigarrena.- Aurreko erabakian aipatzen den Xehetasun azterlana Gipuzkoako Foru Aldundiari bidaltzea, Hirigintza Plangintzako Administrazio Erregistroan gordailutu dezan argitaratu baino lehen

Hirugarrena.- Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea behin betiko onespeneraren erabakia, eta adieraztea dagokion hirigintza-plana egin ondoren gordailutu dela erregistro horretan.

Laugarrena.- Goizuetako Etxeak SLri jakinaraztea eraikitze lizentzia emateko udal arkitektoaren 2022ko maiatzaren 20ko txostenean ezarritako baldintzak bete beharko dituztela.

Bosgarrena .- Erabaki hau Goizuetako Etxeak SLri jakinaraztea, eta 2022ko maiatzaren 20ko udal-arkitektoaren txostena bidaltzea.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena **aho batez onartu** da.

Andoni, quien explica que en el plazo de alegaciones a la aprobación inicial, no se ha presentado ninguna, pero que dicha aprobación se dió condicionada, y que se han cumplido las condiciones impuestas. A continuación, presenta, para su aprobación, el siguiente dictamen de la Comisión Informativa de Urbanismo, Vivienda, Medio ambiente y Movilidad:

Primero.- Aprobar definitivamente el Estudio de detalle de la U.E.U 2.4 BORTOENEA del PGOU de Astigarraga.

Segundo.- Remitir el Estudio de Detalle a que se refiere el acuerdo anterior a la Diputación Foral de Gipuzkoa para su depósito en el Registro administrativo de planeamiento urbanístico con carácter previo a su publicación

Tercero.- Publicar en el Boletín Oficial de Gipuzkoa el contenido del acuerdo de aprobación definitiva con indicación de haberse producido el depósito del plan urbanístico en el citado registro una vez efectuado.

Cuarto.- Comunicar a Goizuetako Etxeak S.L que para la concesión de la licencia de edificación deberán de dar cumplimiento a las condiciones establecidas en el informe del arquitecto municipal de fecha 20 de mayo de 2022.

Quinto.- Notificar este acuerdo a Goizuetako Etxeak S.L., remitiéndole el informe del arquitecto municipal de fecha 20 de mayo de 2022.

Acto seguido se procede a votar y se **aprueba** el dictamen por **unanimidad**.

5.- Kiroldegiaren berritzeari buruzko aurretiko azterketa

Alkateordeak azaldu du premiei buruzko alde aurreko azterlan bat egin dela, eta PRTR laguntza eskatu nahi dela obrak egikaritzeko eta horretarako behar den egikaritze-proiektua idazteko. Hori dela eta, Obrak eta Zerbitzuak batzorde informatiboko irizpenari erabileraren buruzko akordio bat gehitzea proposatzen du.

Jarraian, bozkatzera ekin zaio, eta **aho batez onartu** da honako akordio hau:

Lehena.- Onartzea udal kiroldegia birgaitzeko, Uzcanga Arquitectos SLPk, 2022ko maiatzean,

5.-Anteproyecto de rehabilitación del polideportivo

La teniente de alcalde explica que se ha realizado un estudio previo sobre necesidades, y que es intención solicitar una ayuda PRTR para ejecutar las obras y redactar el proyecto de ejecución necesario para ello. Por lo que propone incluir en el dictamen de la comisión un acuerdo relativo al uso del edificio.

Acto seguido se procede a votar y se **aprueba por unanimidad** el siguiente acuerdo:

Primero.- Aprobar el estudio previo de rehabilitación del polideportivo municipal, redactado



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

idatzitako aurretiko azterketa.

en mayo del 2022, por Uzcanga Arquitectos SLP.

Bigarrena.- Obra exekuzio proiektua eta administrazio-baldintzen agiria idazten hastea.

Segundo.- Iniciar la redacción del proyecto de ejecución de obra y del pliego de condiciones administrativas

Hirugarrena.- Udal-kiroldegia dagoen erakina gutxienez 20 urtez gaur egun duen erabilerarako erabiltzeko konpromisoa hartzea.

Tercero.- Comprometerse a destinar, durante al menos 20 años, el inmueble en el que se ubica el polideportivo municipal al uso actual .

6.- Astigarragako bide publikoak hobetzeko azterlanen eta lanen memoria balioetsia.

6.-Memoria valorada de análisis y trabajos de mejora de caminos públicos de Astigarraga.

Obrak eta Zerbitzuak batzorde informatiboko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

Se presenta, para su aprobación, el siguiente dictamen de la Comisión Informativa de Obras y Servicios:

Bakarra.- Onartzea bide publikoen egoeraren azterketa eta konponketa lanei dagokion memoria balioztatua.

Único.- Aprobar la memoria valorada de análisis y trabajos de mejoras en caminos públicos de Astigarraga.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena **aho batez onartu** da.

Acto seguido se procede a votar y se **aprueba** el dictamen por **unanidad**.

7.-Etxez etxeko laguntza zerbitzuaren kontratua: kontratua luzatzea

7.- Contrato del servicio de asistencia domiciliaria: proroga del contrato

Gizarte Zerbitzuak eta adineko pertsonen batzorde informatiboako irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

Se presenta, para su aprobación, el siguiente dictamen de la comisión informativa de Servicios Sociales y tercera edad:

Lehena.- Etxez etxeko zerbitzua emateko, Astigarragako udalak Arreta Zerbitzuak enpresarekin sinatuta duten kontratua LUZATZEA, 2023ko irailaren 16a arte.

Primero.- PRORROGAR, hasta el 16 de septiembre de 2023, el contrato de servicio de ayuda a domicilio, firmado entre el Ayuntamiento de Astigarraga y la empresa Arreta Zerbitzuak.

Bigarrena.- Arreta Zerbitzuak enpresari akordio honen berri ematea.

Segundo.- Notificar el presente acuerdo a la empresa Arreta Zerbitzuak.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena **aho batez onartu** da.

A continuación se procede a votar y se **aprueba** el dictamen por **unanidad**.

8.- Babestuetako etxebizitzetako erabiltzaileentzat laguntza zerbitzuaren kontratua: kontratua luzatzea.

8.-Contrato del servicio de asistencia a personas usuarias de las viviendas tuteladas: proroga del contrato.

Gizarte Zerbitzuak eta adineko pertsonen batzorde informatiboako irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

Se presenta, para su aprobación, el siguiente dictamen de la comisión informativa de Servicios Sociales y tercera edad:



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

Lehena.- “Marisa Garaño” babespeko etxebizitzetako erabiltzaileentzat laguntza zerbitzua emateko, Astigarragako udalak Arreta Zerbitzuak enpresarekin sinatuta duten kontratua LUZATZEA, 2023ko irailaren 16a arte.

Bigarrena.- Arreta Zerbitzuak enpresari akordio honen berri ematea

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta testua **aho batez onartu** da.

Primero.- PRORROGAR, hasta el 16 de septiembre de 2023, el contrato de servicio de asistencia a las personas usuarias de las viviendas tuteladas “Marisa Garaño”, firmado entre el Ayuntamiento de Astigarraga y la empresa Arreta Zerbitzuak.

Segundo.- Notificar el presente acuerdo a la empresa Arreta Zerbitzuak.

A continuación se procede a votar y se **aprueba** el texto por **unanimidad**.

9.- 2023 urterako herriko jai eguna izendatzea

Bozeramaile Batzordeko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

Bakarra.- Uztailaren 26a, Santa Ana eguna, izendatzea 2023ko herriko jai eguna.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta testua **aho batez onartu** da.

9.- Designación de la fiesta local para el año 2023.

Se presenta, para su aprobación, el siguiente dictamen de la Junta de Portavoces,:

Único.- Designar el 26 de julio, día de Santa Ana, día festivo local del 2023.

A continuación se procede a votar y se **aprueba** el texto por **unanimidad**.

10.- Astigarragako osasun zentro berriari buruzko adierazpen instituzionala.

Alkateordeak azaldu du testua mozio bezala aurkeztu zen arren, 3 alderdiek babesten dutenez, adierazpen instituzionaltzat aurkezten dela. Jarraian hurrengo testua aurkeztu du onartua izan dadin:

Aurrekariak

2019ko azaroan Osakidetza Donostialdeko Gerentziarekin harremanetan jarri zen Astigarragako Udala, besteak beste Astigarragako osasun zentroan arratsaldeko txandak jarri ote zitezkeen galdetzeko eta pediatriako zerbitzua indartzeko eskatzeko.

Astigarragako biztanleen kopurua bikoiztu egin da azken 15 urteotan eta une honetan (2022ko maiatzean) 7.563 biztanle ditu. Jaiotza tasa Gipuzkoako tasaren bikoitza izaten ari da urtero. Beraz, gero eta biztanle gehiago eta gero eta haur-gaztetxo gehiago (pediatriako behar gehiago). Hortik zetorren Udalaren eskaera.

Horrekin batera, Astigarragako Osasun Zentroko

10.- Declaración institucional sobre el nuevo centro de salud de Astigarraga

La teniente de alcalde explica que aunque el texto se presentó como una moción, al contar con el respaldo de los 3 partidos, se presenta como declaración institucional. A continuación presenta el siguiente texto para su aprobación:

Antecedentes

En noviembre de 2019 el Ayuntamiento de Astigarraga se puso en contacto con la Gerencia de Donostialdea de Osakidetza para interesarse, entre otras cuestiones, por la posible instalación de turnos de tarde en el centro de salud de Astigarraga y solicitar el refuerzo del servicio de pediatría.

La población de Astigarraga se ha duplicado en los últimos 15 años y en estos momentos (mayo de 2022) cuenta con 7.563 habitantes. La tasa de natalidad está duplicando la de Gipuzkoa cada año. Por tanto, cada vez más población y cada vez más niños-as (más necesidades pediátricas). De ahí la petición del Ayuntamiento.

Asimismo, en las conversaciones que hemos



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

langileekin izan ditugun elkarrizketetan argi adierazi digute leku arazo dituztela eta, biztanle kopurua handituz doanez, etorkizunean arazo horiek areagotu egingo direla.

Osakidetza Udalari adierazi zion arratsaldeko txandak jartzeko leku arazoak zeudela Astigarragako Osasun Zentroan. Gaia elkarrekin aztertzen aritu ondoren, Osakidetza Donostialdeko Gerentziak Udalari adierazi zion etorkizunera begira 800m² inguruko azalerako lokala beharko litzatekeela. Udalak konpromisoa hartu zuen gisa horretako eraikin edo lokalen aukerak aztertzeko.

Gaia azertu ondoren, 2021eko urtarrilean Udalak proposamen zehatza egin zion Osakidetza Donostialdeko Gerentziari, hain zuzen ere osasun zentro berria egitea Urumea Berriko azken etxebizitza blokearen beheko solairuan (800m² inguruko azalera duen lokala). Halaber, Udalak adierazi zion lokal hori amaituta egongo zela 2021eko urte amaieran. Osasun zentroak eraikitzeko eskumena eta ardura Osakidetzaarena da, baina udalak orubea edota lokala laga behar dio.

Erantzunik jaso ez zuenez, 2021eko uztailean Udalak berriz eskatu zion erantzuna Osakidetza idatziz. Osakidetza Donostialdeko Gerentziak erantzun zuen Osakidetza azpiegituren zerbitzua beharrak aztertzen ari zela.

2021eko urte amaieran aipatutako lokala amaituta zegoen eta ingurua hiritartuta.

Hainbat hilabete igaro eta erantzunik jaso ez zuenez, Udalaren eskariz, 2022ko otsailean idatzizko galdera aurkeztu zen Eusko Legebiltzarrean. Idatzi horri Osasun sailburuak 2022ko martxoaren 7an erantzun zion, honakoa adieraziz:

“Astigarragako osasun-zentroko zerbitzuaren inguruan.__(12/10/07/02/01887-799) Osakidetza etengabe ebaluatzen du bere osasun-zentroen egoera, lehen mailako arretako inbertsio programaren kontura zer jarduketara egin eta zer lehentasunekin egin behar diren zehazteko. Astigarragako egoeraren ebaluazioa ez da amaitu. Oraingoan, egungo kokapenean ez dago lekurik, ezta hazteko aukerarik ere. Astigarragako herritarren beharrei nola erantzun aztertzen ari

mantenido con el personal del Centro de Salud de Astigarraga nos han trasladado que tienen problemas de espacio y que, al ir aumentando el número de habitantes, en el futuro estos problemas se van a acrecentar.

Osakidetza indicó al Ayuntamiento que había problemas de espacio para ofrecer turnos de tarde en el Centro de Salud de Astigarraga. Tras un análisis conjunto de la creación, la Gerencia de Donostialdea de Osakidetza indicó al Ayuntamiento que de cara al futuro se necesitaría un local de unos 800 m² de superficie. El Ayuntamiento se comprometió a estudiar las posibilidades de este tipo de edificios o locales.

Tras estudiar el asunto, en enero de 2021 el Ayuntamiento elevó una propuesta concreta a la Gerencia de Donostialdea de Osakidetza, consistente en la realización de un nuevo centro de salud en la planta baja del último bloque de viviendas de Urumea Berri (local de unos 800 m² de superficie). Asimismo, el Ayuntamiento le indicó que este local estaría terminado a finales de 2021. La competencia y responsabilidad de la construcción de los centros de salud es de Osakidetza, pero corresponde al ayuntamiento la cesión del solar y/o local.

Al no recibir respuesta, en julio de 2021 el Ayuntamiento volvió a solicitar una respuesta por escrito a Osakidetza. La Gerencia de Donostialdea de Osakidetza respondió que el servicio de infraestructuras de Osakidetza estaba analizando las necesidades.

A finales de 2021 el citado local estaba terminado y la zona urbanizada.

Transcurridos varios meses sin recibir respuesta, a instancias del Ayuntamiento, en febrero de 2022 se presentó una pregunta por escrito en el Parlamento Vasco, pregunta que fue contestada por la Consejera de Saindud el 7 de marzo de 2022 señalando:

“Información relativa al servicio del centro de salud de Astigarraga”. (12/10/07/02/01887-799). Osakidetza evalúa permanentemente la situación de sus centros de salud para fijar qué actuaciones realizar y con qué prioridad a cargo de su programa de inversiones en Atención Primaria. La evaluación de la situación de Astigarraga no ha terminado. De momento, se considera que en la ubicación actual no hay espacio y tampoco posibilidad de crecer. Se está estudiando la respuesta a las necesidades de



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

dira.”

Astigarragako Udalak eta herriak premia ugari ditu eta Osakidetzari eskainitako lokala ezin du erabili gabe eduki, epemugarik gabe, Osakidetzak zer eta noiz erabaki bat hartuko zain. Halaber, Astigarragako Udalak epe erdi eta luzera nekez izango du eskura ezaugarri horiek dituen beste lokalik.

Horregatik guztiagatik, Astigarragako Udalaren Osoko Bilkurak honakoa adierazten du:

1. Astigarragako gaur egungo osasun zentroak leku arazo nabarmenak ditu astigarrarrei zerbitzu egokia eskaintzeko.

2. Astigarragako Udalak berretsi egiten du, berriz ere, bere borondatea Osakidetzari Urumea Berriko lokala lagatzeko, bertan osasun zentro berria egin dezan.

3. Astigarragako Udalak Osakidetzari eskatzen dio berehala erantzun dezala, eskainitako lokala ontzat ematen duen ala ez eta konpromisoa har dezala lagapena formalizatu eta osasun zentro berriaren proiektua atzerapenik gabe martxan jartzeko.

4. Astigarragako Udalak adierazpen instituzional hau Osakidetzari eta Eusko Legebiltzarrko Osasun Batzordeko kideei helaraziko die, gaiari erantzun egoki bat ahalik eta lasterren emateko konpromisoa eskatuz.

Mikel zinegotziak hitza hartu eta azaldu du testua bozeramaile batzordean aurkeztu zela, eta aztertu ondoren erabaki zela 3 alderdien babesa edukiz, adierazpen instituzionaltzat aurkeztea osoko bilkurari, eta pozten dela horrela egin delako. Gainera, adierazi du aurreko legealdian ere zerbitzu honen inguruan EHBilduk aurkeztutako mozio bat babestu zuela.

Nerea zinegotziak hitza hartu eta adierazi du bera bozeramaile batzordean egoterik ez zuen arren, alkatearekin hitz egin eta adierazi ziola bere alderdiak testua babestuko zuela, zerbitzu guztiak eremu berean jartzearen aldekoak ez diren arren. Jarraian, zerbitzuaren inguruan aurreko legealdian egindakoak azaldu ditu.

Alkateordeak berriro hitza hartu eta adierazi du bere taldea ere ez dela zerbitzu guztiak Urume Berrin jartzekoaren alde, baina udalak ez duela zerbitzu honentzako egokia den beste lokalik.

los/as vecinos/as de Astigarraga.”

El Ayuntamiento y la localidad de Astigarraga tienen muchas necesidades y el local ofrecido a Osakidetza no puede estar sin ningún uso sine die, a la espera de que Osakidetza tome una decisión sobre qué y cuándo. Asimismo, el Ayuntamiento de Astigarraga difícilmente podrá disponer de otro local de esas características a medio y largo plazo.

Por todo ello, el Pleno del Ayuntamiento de Astigarraga manifiesta lo siguiente:

1. El actual centro de salud de Astigarraga presenta notables problemas de espacio para ofrecer un servicio adecuado a los y las astigarraras.

2. El Ayuntamiento de Astigarraga reitera su voluntad de ceder a Osakidetza el local de Urumea Berri para que construya un nuevo centro de salud.

3. El Ayuntamiento de Astigarraga Insta a Osakidetza a que conteste de forma inmediata si da el visto bueno al local ofertado y se comprometa a formalizar la cesión y poner en marcha sin demora el proyecto del nuevo centro de salud.

4. El Ayuntamiento de Astigarraga dará traslado de esta declaración institucional a Osakidetza y a los miembros de la Comisión de Salud del Parlamento Vasco, solicitando el compromiso para dar una respuesta adecuada a la cuestión a la mayor brevedad posible.

Toma la palabra el concejal Mikel y explica que el texto se presentó en la Junta de portavoces, donde se analizó y decidió presentarla, al pleno, como declaración institucional, si contaba con el apoyo de los 3 partidos; y que se alegra de que se haya hecho así. Además, señala que en la anterior legislatura también apoyó una moción presentada por EHBildu en relación con este servicio.

La Concejala, Nerea, toma la palabra para manifestar que aunque ella no pudo asistir a la Junta de Portavoces, habló con el Alcalde y le dijo que su partido apoyaría el texto, aunque no son partidarios de que todos los servicios se ubiquen en el mismo ámbito. A continuación, expone las actuaciones realizadas en la anterior legislatura en relación con este servicio.

Toma la palabra nuevamente la Teniente Alcalde para manifestar que su grupo tampoco es partidario de poner todos los servicios en Urumea Berri, pero



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

que el Ayuntamiento no dispone de ningún otro local adecuado para el servicio.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta testua **aho batez onartu** da.

A continuación se procede a votar y se **aprueba** el texto por **unanimidad**.

11.- - Informazio, galdera eta eskariak.

Mikel zinegotziak hartu du hitza, eta alkatea azkar sendatzea espero duela esan ondoren, eskatu du animoak eta maitasuna adierazteko. Nerea zinegotziak, bere izenean eta bere taldearen izenean, esandakoarekin bat egin du.

11.- Información, ruegos y preguntas

Toman la palabra el concejal Mikel y tras señalar que espera la pronta recuperación del alcalde, pide que le trasladen animo y cariño. A lo que se une la concejala Nerea, en su nombre y la de su grupo.

Alkateordeak bilkura amaitutzat eman du, eta eztabaidatua eta erabakitakoa jasota gera dadin nik, Idazkariak, honako agiria egin dut

Astigarragan, 2022ko maiatzaren 31n.

Kontxi Urdampilleta Santamaria
Ordezko udal-idazkaria